



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ORMAIZTEGIKO UDALAREN 2005-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Ormaiztegiako Udalaren 2005eko ekitaldiaren Kontu Orokorraren eta ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak egin eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Langileriari dagokionez, HKEEk azpimarratu du aldi baterako bi kontrataziotan ez direla publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde.

Legezkontasuna betetzean akatsak azaleratu diren beste atal bat, administrazioko kontratazioari dagokio. Ez betetze hauek gauzatutako zenbait kontraturen esleipenean publizitate eta lehia eza dira nagusiki. Halaber, gauzatutako kontratazioren batean aurrekontu-kreditu eza izan dela azaleratu da.

Udal kontuei buruzko iritziaren atalean, fiskalizazio txostenak ondorioztatu du egoki islatzen dutela udal jarduera, nahiz hainbat doiketa egin zaizkion Diruzaintza geldikinari, 43.817 euroan gehitzen dutenak, 117.000 euroraino ekarriz. Honez gain, ibilgetuaren zerrenda gaurkoturik ez dagoela azpimarratu da.

Finantzaren egoerari dagokionez, 2005era arte aurrezki garbia gehitu egin dela ondorioztatu da, batez ere inbertsio berriak finantzatzeko erabili dena.